

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 41/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa. Onestea Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren (oraingo Kultura eta Kirol Sailaren) egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatu Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuaren aldaketa

Diputatu Nagusiak uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ditu 2019-2023 legealdirako, eta ezarri du Diputatu Nagusiaren Sailaren eginkizunak eta eskumenak honako hauek direla, besteak beste: euskara politikak Arabako Lurralde Historikoan.

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirola Sailaren egitura organikoa onartzen duenak, xedatzen duenaren arabera, orain arte sail horrek eduki du aurreko idatz zatian aipatzen diren arloetako jarduerak kudeatzeko eta betearazteko ardura.

Beste alde batetik, kudeaketa eraginkorragoa izan dadin, erabaki da legealdi honetan bi zuzendaritzaren artean banatuko direla 324/2019 Dekretuak Kultura eta Kirol Sailari esleitzen dizkion gainerako jardun arloak: zuzendaritza baten eskumenekoak izango dira agiritegiak eta liburutegiak, museoak, zaharberritzeak, Kultura Etxea, hezkuntza sustapena eta kultura hedapena, argitalpenak, Historia, arte eta arkitektura ondarea, eta gazteria, eta kirolaren arloa beste zuzendaritza baten eskumenekoa.

Horrenbestez, kontuan hartuta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 8.2 artikuluan Diputatuen Kontseiluari esleitzen diola sailen egitura organikoa onartzeko eskumena, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretua, Euskara, Kultura eta Kirola Sailaren (oraingo Kultura eta Kirol Saila) egitura organikoa eta funtzionala onartzen duena, aldatzen da.

Dekretu hau izapidetzeko, bete egin dira maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 3. artikuluan jasotako araupetze onaren printzipioak. Foru dekretu horrek hauek onartzen ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikarako jarraibideak. Hala, aurrekarietan gaia arautu beharra dagoela justifikatu da; gainera, araubide jarduketa neurrikoa da, gutxienez baina ez baitu jorratzen helburuak lortzeko: Sailaren eta beraren zuzendaritza unitateen eskumeneko esparruak mugatzea eta banatzea, Diputatu Nagusiak 324/2019 Foru Dekretuak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzeko dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu; izan ere, edukia antolamenduari baino ez dagokionez, posible da jendaurrean jartzeko izapidea ez gauzatzea. Edonola ere, onartu bezain laster ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatutako arautzea, duen izaera dela-eta, ez dakarke herritarrei ez administrazio karga osagarririk, ez premiazkoa ez denik.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko azalpen zatiko laugarren paragrafoa aldatzen eta honela gelditzen da:

Kultura eta Kirol Sailari honako arlo hauek esleitzen zaizkio:

- Agiritegiak eta liburutegiak.
- Museoak.
- Zaharberritzeak.
- Kultura Etxea.
- Hezkuntza sustapena eta kultura hedapena.
- Argitalpenak.
- Historia, arte eta arkitektura ondarea.
- Kirola.
- Gazteria.
- Ordenamendu juridikoak ezartzen dituen gainerako guztiak.

Bigarrena. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko 1. artikulua aldatzen eta honela gelditzen da:

1. artikulua. Jardun arloak

Diputatu Nagusiak uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak eta beren jardun arloak zehaztu ditu, eta ezarri du Kultura eta Kirol Sailaren eginkizunak eta eskumenak honako hauek direla, besteak beste: agiritegiak eta liburutegiak; museoak; zaharberritzeak; Kultura Etxea; Hezkuntza sustapena eta kultura hedapena; argitalpenak; historia, arte eta arkitektura ondarea; kirola; gazteria; ordenamendu juridikoak ezartzen dituen gainerako guztiak.

Gainera, Kultura eta Kirol Sailak bere gain hartuko ditu bere jardun arloekin zerikusia duten gainerako beste eskumen guztiak, Foru Aldundiarenak izanik beste foru sail bati berariaz esleitzen ez zaizkionak.

Hirugarrena. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko 2. artikulua aldatzen eta honela gelditzen da:

2. artikulua. Egitura

Aurreko artikuluan aipatutako jardun arloetako eginkizunak gauzatzeko, Kultura eta Kirol Saila unitate organiko hauetan egituratzen da:

1. Kultura Zuzendaritza; honi atxikita daude:
 - a) Agiritegi Zerbitzua
 - b) Museo eta Arkeologia Zerbitzua
 - c) Zaharberrikuntza Zerbitzua
 - d) Kultura Etxeko Zerbitzua
 - e) Kultura Ekintza Zerbitzua
 - f) Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua
 - g) Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua

2. Kirol Zuzendaritza; honi atxikita daude:

a) Kirol Zerbitzua

Laugarrena. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko 3. artikulua aldatzen eta honela gelditzen da:

3. artikulua. Kultura eta Kirol Sailari atxikitako entitateak, erakundeak eta organoak

Hona hemen Kultura eta Kirol Sailari atxikita dauden erakundeak eta sozietate publikoak, bakoitza Erakundeen Erregistroan daukan identifikazio zenbakiarekin:

73 Gazteriaren Foru Erakundea

20 Santa Maria Katedrala Fundazioa

32 Arabako Artium Fundazioaren Patronatua

57 Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola

231 Arabako Foru Lurraldeko Kirol Batzordea

258 Kirolaraba Fundazioa

287 Añanako Gatz Harana Fundazioa

Gazte Partaidetzarako Arabako Lurralde Kontseilua

Bosgarrena. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko 6. artikulua aldatzen eta honela gelditzen da:

6. artikulua. Saileko zuzendaritzen eginkizun orokorrak

Saileko zuzendaritza organoak direnez gero, Kultura eta Kirol Saileko zuzendaritzan eginkizun orokorrak Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ezartzen ditu.

Seigarrena. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko 9. artikulua aldatzen eta honela gelditzen da:

9. artikulua. Kontratazio mahaia

Kultura eta Kirol Sailean kontratazio mahai iraunkorra egongo da, eta sailak prozedura irekian zein murriztuan egiten dituen kontratu guztietan ariko da, bere eskumenei lotuta.

Kontratazio mahian kide hauek ariko dira:

Mahaiburua: Kultura eta Kirol zuzendaria.

Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuko burua edo berak eskuordetzen duen pertsona.

Mahaikidea: Kontratazioa proposatzen duen zerbitzuko bi funtzionario.

Bi mahaikide, kontratazio organoaren lege aholkularitza eta kontuhartzaitza dagozkien administrazio atalek izendatuak.

Zazpigarrena. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko II. kapitulua aldatzen eta honela gelditzen da:

II. KAPITULUA

KULTURA ZUZENDARITZAREN ESKUMENAK

Zortzigarrena. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko 10. artikulua aldatzen eta honela gelditzen da:

10. artikulua. Kultura Zuzendaritza

Kultura Zuzendaritzaren eskumenak dira kulturaren arloko politikak kudeatzea eta horri atxikitako administrazio unitateak zuzentzea, bai eta arlo hauetako eginkizunak ere:

- Agiritegiak eta liburutegiak.
- Museoak.
- Zaharberritzeak.
- Kultura Etxea.
- Hezkuntza sustapena eta kultura hedapena.
- Argitalpenak.
- Historia, arte eta arkitektura ondarea.

Bederatzi. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko 11. artikulua ezabatzen da.

Hamargarrena. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko 18. artikulua aldatzen eta honela gelditzen da:

18. artikulua. Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua

Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

- a) Sailarekin lankidetzan aritzea aurrekontuaren aurreproiektua prestatzen, eta gero aurrekontuaren jarraipena egitea.
- b) Sailaren ebazpenak eta kontabilitate dokumentuak egitea eta, oro har, haien izapidetze ekonomiko eta administratiboa bideratzea, eta unitateei aurrekontua betetzearen inguruan aholku ematea.
- c) Sailaren unitateei lege aholkua ematea.
- d) Funtzio Publikoko Zuzendaritzako Giza Baliabideen Zerbitzuarekin elkarlanean jardutea, eta horrekin batera zehaztea plantilla, lanpostuen zerrenda, hautapen prozesuak eta, oro har, saileko langileei dagozkien alderdi guztiak.
- e) Saileko informazio sistemak diseinatzea eta ezartzea, eta haien jarraipena egitea, bai eta sailaren urteko memoria idaztea ere.
- f) Sailak lanerako, artxiborako eta dokumentaziorako dituen metodo administratiboak arrazionalizatu, sinplifikatu eta normalizatzeko azterlanak eta txostenak egitea, Antolaketa Zerbitzuarekin koordinatuta.
- g) Sailaren funts dokumentalaren bibliografia, agerkariak, xedapen juridikoak, artikulua eta informazioa antolatu eta kudeatzea.
- h) Sailaren jarduerak dakartzan kontratazio espedienteak eta hitzarmenak kudeatzea eta izapidetzea, eta haien jarraipena eta kontrola egitea. Halaber, ebazpenen berri ematea nola saileko zerbitzuei hala horietan interesatuta dauden partikularrei.
- i) Politika publikoen, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen ebaluazioa kudeatzea, sailaren eskumeneko arloetan, 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onarenak, xedatzen duen moduan.

Hamaikagarrena. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuari III. KAPITULUA gehitzen zaio, izenburu honekin: KIROL ZUZENDARITZA.

Hamabigarrena. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko III. KAPITULUAN 19. artikulua sartzen da; hona testua:

19. artikulua. Kirol Zuzendaritza

Kirol Zuzendaritzaren eskumenak dira kirolaren arloko politikak kudeatzea eta horri atxikitako administrazio unitateak zuzentzea.

Hamahirugarrena. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko III. kapituluaren 20. artikulua txertatzen da; hona testua:

20. artikulua. Kirol Zerbitzua

Kirol Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

a) Eskola Kiroleko programak bultzatzea ikastetxeekin, klubekin, kirol taldeekin, Arabako kirol federazioekin eta gainerako kirol agente guztiekin lankidetzan.

b) Bertako kirolak sustatzea.

c) Jolas Kiroleko programak bultzatzea, oro har irabazteko xederik gabeko talde eta elkarrekin lankidetzan, bereziki kirol arloko talde eta elkarteekin.

d) Kirol federatuko programak gara daitezen sustatzea Arabako Kirol Federazioen bitartez.

e) Kirol federatuaren garapena sustatzea kirol klub, talde eta elkarteekiko lankidetzan, arreta berezia emanez emakumeen, kadeteen eta gazteen kirolari, desgaitasunen bat dutenentzako kirola garatzen duten kolektiboek, eta haietako guztietako teknikariak prestatu eta egunean edukitzeari.

f) Araban kirola sustatzea eta garatzea, arreta berezia jarrita errendimendu handiko kirol ez profesionalari, Kirolaraba Fundazioaren bidez.

g) Eskola eta jolas kiroleko programen garapena sustatzea Arabako toki erakundearen bidez.

h) Indarreko legeriaren arabera sailak kirolaren arloan dauzkan eskumenak gauzatzeko behar diren ekintza guztiak gauzatzeko.

AZKEN XEDAPENA

Onartu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean foru dekretu hau, ALHAOn noiz argitaratu gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abuztuaren, 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ SAN VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO